



PARTE HARTZE SAIOAREN ERREGISTROA

AGENDA 2030 FOROA

**LEGAZPIARROK GURE HERRIA
GARBI MANTENTZEKO DUGUN
KONPROMISOA**

2022ko Otsailaren 17a

AURKIBIDEA

PARTE HARTZAILEAK	3
SAIOAREN HELBURUA ETA KOKAPENA	3
TALDE KOHESIOA ETA GIRO ONA LANTZEN.....	3
LEGAZPIARROK GURE HERRIA GARBI MANTENTZEKO DUGUN KONPROMISOA INDARTZEKO EKINTZA PROPOSAMENAK LANTZEN.....	4
HERRIKO GUNE DESBERDINAK GARBITZEARI UZTEA	5
HERRIKO TXUTXE-DENDEKIN LANKETA	7
SAIOAREN ITXIERA.....	8

AGENDA 2030 FOROAREKIN, 3. SAIOA

PARTE HARTZAILEAK

Jarraian otsailaren 17an gauzatutako saioan elkartu ginen pertsonen zerrenda jasotzen dugu. Guztira, 13 lagun elkartu ginen eta Farapi Kooperatibako 2 kide egon ziren saioa dinamizatzen:

	IZEN ABIZENAK	ELKARTEA, ERAKUNDEA, NORBANAKOA
1	Xabier Arrondo	Nagusilan eta udal garbitzailea
4	Iñigo Imaz	EAJ-PNVko zinegotzia
5	Nerea Muñoz Zumarraga	Nerabeentzako zerbitzuko hezitzailea
6	Unai Martinez	Haztegi ikastola
7	Eduarne Gonzalez	EH Bilduko zinegotzia
8	Bittor Larraza	Creativos GH
9	Alberto Bezunartza	Legazpiko Berdeak + Independientes taldeko zinegotzia
10	Maite Lombide	Tokiko Garapen Iraunkorreko zinegotzia
11	Inma Hernandez	Tokiko Garapen Iraunkorreko udal teknikaria
12	Gabriela Renteria	Farapi Kooperatibako teknikaria
13	June Arechalde	Farapi Kooperatibako teknikaria

SAIOAREN HELBURUA ETA KOKAPENA

Lehenik eta behin, gaurko saioaren helburua zein izango den gogorarazi diegu partaideei: aurreko saioan legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko konpromisoa indartzeko aukeratu genituen bi ekintzak antolatzeke hartu behar ditugun erabakiak denon artean eztabaidatzea eta ixtea.

TALDE KOHESIOA ETA GIRO ONA LANTZEN

Aukeratutako bi ekintzen inguruko lanketarekin hasi baino lehen, gure arteko elkar ezagutza eta konfiantza indartzeko dinamika bat egin nahi izan dugu. Oraingoan kantua aukeratu dugu adierazpenerako bide bezala eta dibertigarria izan da ezagutzea zeintzuk dira Legazpiko Agenda 2030 Foroa osatzen dugun pertsonen trebeziak eta gustuak arlo honetan!

LEGAZPIARROK GURE HERRIA GARBI MANTENTZEKO DUGUN KONPROMISOA INDARTZEKO EKINTZA PROPOSAMENAK LANTZEN

Oraingo saioan, aurrekoan ez bezala, talde guztiak bi gaiak landuko ditu, beraz lehenik eta behin, espazio jakin batzuk garbitzea uztearen gaiari helduko diogu, ahalik eta zehaztasun handienarekin erabakiak hartuz eta jarraian pipa azalena.

Gogorarazte arren hauek dira landuko diren bi ekintzak:

1. Udalak espazio jakin batzuk aldi jakin baterako garbitzeari uztea eta komunikazio-eta sentsibilizazio-kanpaina bat abiatzea ekintza horrekin batera, jendea arazoaz jabetu dadin.
2. Herriko txutxe-dendei paperontziak eta beste bilgarri edo ontzi berrerabilgarri batzuk ematea, denda-inguruetan garbiketa sustatzeko (adibidez, pipa-azalak botatzeko ontziak ematea).

Gaurko erronka, beraz, ekintza bakoitza antolatzeaz bukatzeko hartu beharreko erabaki guztiak ixtea litzateke, honekin batera, beharrezkoa litzakeen lan ardua banaketa bermatuz.

Lanketarekin hasi aurretik, Inmak, zein komunikazio kanpaina sortuko duten enpresa ordezkariak, azken saiotik hona landutakoa eta dituzten proposamen ezberdinak azaldu dituzte.

Hasieran aurkeztutako proposamena hurrengoa izan zen:

KRONOGRAMA

EGIN KLIK... BAIETZ!

Noiz	Zer	Oharrak	Foroarekin zehaztu beharrekoak
maiatzak 12-15	Moskeo bideoa argitaratzea (logorik gabe)	<ul style="list-style-type: none"> herriko profesioanl batek sare sozialetan, utb, whatsapp... 	
maiatzak 16 – 30	Ez garbitzea (5 eremuetan)	bukaeran udalaren makinak garbituko du	<ul style="list-style-type: none"> egun honetan hasi? 9an? argazkiak nork?
maiatzak 18 – 22	Moskeo bideoa argitaratzea (logoa jarrita)	sare sozialetan, utb, whatsapp...	
maiatzak 20 – ekainak 11	Txutxe- denda inguruetan pipa azalen kanpaina	<ul style="list-style-type: none"> kubileteak zilindroak zozketarako papeletak 	<ul style="list-style-type: none"> pipa azalak konpostatzea? zozketak noiz eta nola? saria
maiatzak 31tik aurrera	5 eremuetan argazkiak erakusgai	lonak (zikin – garbi)	<ul style="list-style-type: none"> argazkiak nork atera?
ekainak 1 – 23	Ez garbitzea (5 eremuetan)	bukaeran udalaren makinak garbituko du	
ekainak 23 (17:30 – 19:30)	Kanpainari bukaera emateko kale ekintza	<ul style="list-style-type: none"> oilar jokuaren arratsalde berdinean plazako muntaiaren prozesua grabatzea argazkiekin panel bat osatzea (ibilbide guztia bistaratzeko) eta euria, haizea... eginez gero? 	<ul style="list-style-type: none"> ordua? muntaiaren nork? grabazioa nork? altzariak nork? animazioak, antzerkiak..? informazioa ematea?
			<ul style="list-style-type: none"> ↳ ados proposamenekin? ↳ leloarekin? ↳ kronogramarekin?

Jarraian, talde eztabaida eman eta gero, ekintza bakoitzari lotuta hartutako erabakiak zeintzuk izan ziren jasotzen da:

Herriko gune desberdinak garbitzeari uztea

GAIA	ERABAKIA
Garbituko ez diren espazioei dagokienez:	<p>- Aurreko saioan aipatutako 5 guneak berretsi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Latxartegi Parkea 2. Kultur Etxe ingurua 3. Nafarroa 18 4. Laubide kale ingurua 5. Agirretxeberri <p>- Gainera, ekintzak ondo funtzionatzen badu irailetik aurrera linterekin elkarlanean futbol zelaiko gradak garbitzeari uzteko ekintza gauzatuko da. Oraingoan ideia hau deuseztatu egin da maiatza-ekaina inguruan kirol txapelketak amaitzen direlako justu eta, beraz, ekintza ez zen eraginkorra izango.</p>
Garbitzeari utziko den datei dagokienez:	- Gune guztiak aldi berean utziko direla garbitzeari erabaki da.

	<ul style="list-style-type: none"> - Egutegia hurrengo izango da: <ul style="list-style-type: none"> - Maiatzak 13-22 (23an garbiketa egin) - Ekainak 13-22 (23an garbiketa egin) - Ekainak 23: GARBIKETA + KALE EKINTZA GAUZATZEA (ikusitako kale ekintzaren inguruko atala gehiago jakiteko)
<p>Ekintzaren komunikazioari dagokionez:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Moskeo kanpaina bat egingo da (Maiatzak 12-15). - Kanpaina honek pipa azalak ez botatzeko kanpainaren lelo berdina izango du: <i>"Egin klik, baietz!"</i>. Aipatu da euskara arduradunarekin kontrastatu behar dela lelo hau hizkuntzaren zuzentasunaren aldetik. Inma eta Bittor gelditu dira lan hau egitekotan. - Azkenik, difusioan laguntza eskatuko zaie herriko eragile hauei: <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak - Gazte elkarteak - Gaztelekua - Kirol Elkarteak - (...) - Moskeo kanpaina zabaltzeko beste eragileen laguntza oso beharrezkoa dela ikusi dute partaideek. Azken finean, udalaren kanal ofizialek oso eragin gutxi dute eta ez dira gizarte osora iristen.
<p>Ekintzari lotutako kale ekintza berezia:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza honi amaiera emateko egingo den kale ekintza berezia: <ul style="list-style-type: none"> - Kale Nagusian, Elizondo aurrean, egingo da. - Egongela bat irudikatuko du eta bertan jasotako zaborraren parte bat zabalduko da, lurrean eta altzarien gainean. - Espazioa dinamizatzeko pertsona profesional baten edo gehiagoren zerbitzuak kontratatuko dira (kale animazioan dabiltzanak, antzerki munduan, etabar.) - Agenda 2030 Foroaren aliatuak izan daitezkeen elkarte, erakunde eta pertsonak gonbidatuko dira ekintza berezian parte hartzea. - Horretaz gain, herriko pertsona ospetsuak edo eragin handikoak gonbidatuko dira ekintzan parte hartzera (adibidez, Maria Go!Azen-ekoa). Pertsona hauek zuzenean parte hartzeko aukerarik ez badute bideo bat grabatzea eskatuko zaie kanpainaren leloa errepikatuz. Gero, bideo hauek sare sozialetan zabalduko dira edo ekintza egiten den egunean bertan erakusgai egongo dira ekintza berezia egingo den tokian bertan.

<p>Zein izango da jendearen rola ekintza berezi hau gauzatzeari dagokionez?</p>	<p>- Gai hau ezin izan dugu gaurko saioan guztiz itxi, baina, oro har, adostu dena hurrengo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jendea ekintza berezian egongo da, ez garbiketa prozesuan. - Argazkiak eta agian bideoa ere aterako dira eta hor ateratzeko prest egotea izango da ere jendeari eskatuko zaiona.
--	---

Herriko txutxe-dendekin lanketa

Ekintza honetan alderdi gehiago zeuden jada definituta eta, beraz, hartutako adostasunak gutxiago izan dira:

GAIA	ERABAKIA
<p>Zozketak egingo diren datei dagokionez:</p>	<p>- Maiatzak 20- Ekainak 11 bitarte. 3 astez luzatuko da ekintza.</p>
<p>Ekintzaren komunikazioari dagokionez:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Moskeo kanpaina bat egingo da (Maiatzak 12-15). <i>Logorik gabe.</i> - Moskeo kanpaina bat egingo da (Maiatzak 18-22). <i>Logoarekin.</i> - Kanpaina honek pipa azalak ez botatzeko kanpainaren lelo berdina izango du: <i>"Egin klik, baietz!"</i>. Aipatu da euskara arduradunarekin kontrastatu behar dela lelo hau hizkuntzaren zuzentasunaren aldetik. Inma eta Bittor gelditu dira lan hau egitekotan. - Azkenik, difusioan laguntza eskatuko zaie herriko eragile hauei: <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak - Gazte elkarteak - Gaztelekua - Kirol Elkarteak - (...) - Moskeo kanpaina zabaltzeko beste eragileen laguntza oso beharrezkoa dela ikusi dute partaideek. Azken finean, udalaren kanal ofizialek oso eragin gutxi dute eta ez dira gizarte osora iristen.
<p>Ekintzari lotutako zozketa eta sarien inguruan:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zozketa grabatuko dela erabaki da eta gero sare sozialen bidez iragarriko da nor izan den irabazlea. - Gainera, irabazten duen pertsonari ekintzaren inguruko bideo bat grabatzea edo kanpainaren leloarekin argazki bat ateratzea proposatuko diogu. Ez da derrigorrezkoa izango, baina proposatuko zaie. - Bideoa grabatu edo argazkia ateratzen bada, irudi baimenak ondo

	<p>kudeatzea garrantzitsua izango da. Beraz, alderdi hauek txutxe dendetako dendariekin koordinatu beharko dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pipoak zozketatuko dira.
<p>Ekintzan jasoko diren pipa azalakin zer egingo dugu?</p>	<p>- Astero txutxe dendak dauden guneetan zintzilikatuko dira nonbaiten jendearentzat ikusgarri egoteko. Ideia honen inguruan zalantzak adierazi dira ea jendeak ez oteko dituen poltsak hartu, eraman, puskatu edo lurrera bota. Horregatik, ikusi behar da nola bideratu hau.</p> <p>-Azkenik, ekintza osoa amaitzen denean (3 asteak pasa direnean) konpostagailu batera botako ditugu pipa azalak. Aztertuko dugu ea ikastetxe bateko konpostagailua erabiliko dugun edo udal konpostagailuren bat.</p>

Hitz egindakoaren ondoren, saioaren hasieran egindako proposamena horrela gelditu zen:

KRONOGRAMA

EGIN KLIK... BAIETZ!

Noiz	Zer	Oharrak	Saioa eta gero zehazteko gelditu diren gaiak
Maiatzak 12-15	Moskeo bideoa argitaratzea (logorik gabe)	<ul style="list-style-type: none"> herriko profesioanl batek sare sozialetan, utb, whatsapp... 	
Maiatzak 13 – 22	Ez garbitzea (5 eremuetan)	bukaeran udalaren makinak garbituko du	<ul style="list-style-type: none"> argazkiak nork?
Maiatzak 18 – 22	Moskeo bideoa argitaratzea (logoa jarrita)	sare sozialetan, utb, whatsapp...	
Maiatzak 20 – Ekainak 11	Txutxe- denda inguruetan pipa azalen kanpaina	<ul style="list-style-type: none"> kubileteak zilindroak zozketarako papeletak 	<ul style="list-style-type: none"> pipa azalak ze konposteran utziko dira? Herriko ikastetxeenean edo mankomunitatekoan?
Maiatzak 23tik aurrera	5 eremuetan argazkiak erakusgai	lonak (zikin – garbi)	<ul style="list-style-type: none"> argazkiak nork atera?
Ekainak 13 – 22	Ez garbitzea (5 eremuetan)	bukaeran udalaren makinak garbituko du	
Ekainak 23 (17:30 – 19:30)	Kanpainari bukaera emateko kale ekintza	<ul style="list-style-type: none"> oilar jokuaeren arratsalde berdinean plazako muntaiia prozesua grabatzea argazkiekin panel bat osatzea (ibilbide guztia bistaratzeko) eta eurria, haizea... eginez gero? 	<ul style="list-style-type: none"> grabazioa nork? informazioa emango dugu kanpainaren inguruan han bertan?

SAIOAREN ITXIERA

Denboraz larri ibili gara oraingoan eta ez dugu saioaren ebaluaziorik egin. Bestetik, printzipioz ez da foroaren beste bilkurarik egingo ekaina arte, behin bi ekintza hauek gauzatzen direnean bere balorazioa egingo dugunean.

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

